


# Multikirola

B I Z K A I A


2 0 0 9



2 0 1 0



**Eskola Kirola**  
**Deporte Escolar**



# 1

## SARRERA

Eskola Kirolaren 2009/10 kanpainaren barruko egitarau honek hau eskeini nahi die haurrei:

- **Kirol batean baino gehiagotan parte hartzen hasteko aukera, Lehen Hezkuntza bukatzen dutenerako beraien gaitasunei eta/edo interesei hobeto egokitzen zaien kirola aukera dezaten.**
- **Norbanakoaren eguneroko bizitzarako eta kirol jarduerarako oso onuragarria izango den eta aisialdi edota mantenimendu edo errendimendura orientatutako mugimenezko, adierazpenezko eta sormenezko oinarria lortzea.**
- **Etorkizunean eta bizitzan zehar, pertsona heldu gisa bere interesekin eta aukerekin ados etor dadin jarduera aukeratu ahal izatea.**

Programa horri buruz adierazi beharreko beste zernolaketan batzuk hauek dira: parte hartzeari emango zaiola garrantzia eta ez beste Kirol Jarduera askotan hain garrantzitsuak diren lehiakortasun eta norgehiagokari, eta jarduera guztiak izango direla mixtoak eta izadiarekin harremanetan jardungo dela.

# 2

## ARAUDI OROKORRA

### 2.1 Taldeen osaera

**2.1.1** Talde bakoitzak gutxienez 8 jokalaria eta gehienez 15 izango ditu. Taldeak mutilenak, neskenak edo mixtoak izan daitezke. Jolasketa bakoitzean talde guztiek hartuko dute parte. Taldeko kide bakoitza gutxienez behin arituko da kirol modalitate guztietan.

**2.1.2** Igerian ikastea zaila denez, Igeriketa modalitatea kanpoan utzita beste Jardueretan parte hartzeko baimena ematea gerta daiteke. Horretarako idatziz eskatu beharko zaio baimena Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuari.

### 2.2 Taldeen izen-ematea

**2.2.1** Ikastetxeak izena eman eta gero, Jarduera hauetan parte hartu nahi duten talde guztiek "Taldearen izen-emate Orria" aurkeztu beharko dute **2009ko irailaren 7tik urriaren 9ra** Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saileko Kirol Zerbitzuan

**2.2.2** Inprimaki horretan jokalarien izenez gain taldearen arduradun diren Entrenatzailearen eta Ordezkararen izenak agertuko dira.

### 2.3 Jardueraren garapena

**2.3.1** Egutegiaren bitartez antolatuko dira kirol modalitate ezberdinak, euren artean zenbait Sustapen Ekitaldi jarritz.

**2.3.2** Liga gisa garatu daitezten jardueretarako programatutako eguna (larunbata), ikastetxe biak ados jartzen badira eta Kirol Zerbitzu honek bere adostasuna ematen badu aldatu egin ahal izango da.

**2.3.3** Etxeko Jolasketen aktak Eskola Kiroleko nagusia (K/ José Maria Escuza , 16 ) bulegoetara eraman beharko dira hurrengo jardunaldia baino lehen.

**2.3.4** Doazkien akta guztiak jaso ez badira, aurkeztu ez duen edo duten taldeek dagokien dirulaguntza eskubidea galduko dute.

**2.3.5** Liga gisa garatu daitezten kiroletan bi arbitro arituko dira, Ikastetxe bakoitzeko bat, eta puntuen idazketa jardunaldia garatzen deneko Ikastetxearen esku geratuko da. Ikastetxeetako baten batek arbitrorik ez badu, bestearenak zuzenduko du jarduna. Edozein modutara ere, arbitraia eta puntuen idazketa kirol jardunaldia egiten deneko Ikastetxearen ardurapekoak dira.

**2.3.6** Taldekakolehiaketa-kiroletan, jardueraren antolaketa hobe izan dadin, entrenatzaileak (edo horiezean berak izendatutakoak) laguntza eskaini beharko die lehiaketako epaileei hauek eskatutakoan.

**2.3.7** Jarduera honetako edozein modalitateetan parte hartzerakoan Eskola lizentzia edo "Fitxa" aurkeztu beharko da. Aparteko kasuetan, eta fitxa tramitatu arte, "Taldearen izen-emate orria" erabili ahal izango da bere orde.

## **2.4. Puntuazioa.**

**2.4.1** Kirol jarduera ezberdinetan ez da inolako sailkapen motarik izango, horren ondorioz taldekako kirol modalitateetan berdinketa izanez gero ez delarik luzapenik edo berdinketa hori kentzeko beste saio gehigarririk egingo.

**2.4.2** Aktetan ezarritako puntuazioa bakarrik izango da kontuan, horretan taldeak (jokalariak, entrenatzaileak eta gurasoak eta jendeak) kirol aldi bakoitzean izan duen jarrera orokorrari buruzko aipamena egingo delarik.

**2.4.3.** Atletismo eta Igeriketa taldeetako kideek lortutako banakako emaitzen zerrendak bidaliko dira.

## **2.5 Beste kirol mota batzuk.**

Programatutakoekin bat ez datozen beste kirol jarduera batzuen egutegiak antolatu ahal izango dira. Horretarako, gutxienez, kategoria bereko bost (5) taldek idatziz aurkeztu beharko dute eskabidea, egin nahi dituzten kirol modalitateak adieraziz. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak aurkeztutako proposamena egokia eta egingarria den aztertuko du.

# **3**

## **KATEGORIAK**

### **3.1. Umetxoak.**

**3.1.1** Honako kirol hauetara jokatu da: **Atletismoa, Futbol 5, Herri Kirolak, Igeriketa, Krossa, Arraunketa, Mendia eta Saskibaloia.**

**3.1.2** Saskibaloia eta Futbol 5ari doazkien frogak liga eran eta kirolaldi guztian zehar garatuko dira.

**3.1.3** Gainontzeko kirolei doazkien jardunaldiak, egutegi orokorrari erantsiko zaizkion instalazio eta egunetan denak batera burutuko dira, Bizkaiko Federazio ezberdinek antolatuko dituztelarik.

### **3.2. Umeak.**

**3.2.1** Honako kirol hauetara jokatu da: **Atletismoa, Herri Kirolak, Igeriketa, Krossa, Mendia, Pelota edo Beisbola (Sarbide) eta Saskibaloia edo Futbol 5a.**

**3.2.2** Izena ematean, egin nahi den kirol-taldea (Saskibaloia edo Futbol 5) zehaztuko da; kirol hau ikasturtean zehar garatuko da liga eran.

**3.2.3** Gutxienez 5 taldek kirol modalitate berbera aukeratzen ez badute (Saskibaloia edo Futbol 5), hori ezin antolatu izango da, eta talde horiek taldekako beste kirolari (Futbol 5 edo Saskibaloia). Gauza berbera egingo da Sarbide Ikastaroekin (Pelota edo Beisbola).

**3.2.4** Gainontzeko kirol modalitateetan Kategoria honetako talde guztiek hartuko dute parte Iharduera Kirolanitzeko ihardunaldi berezietan.

# **4**

## **ESPEZIALITATE BAKOITZAREN ARAUAK**

### **4.1 ATLETISMO**

**4.1.1** Talde bakoitzak 8 atleta izango ditu gutxienez, eta TETRATHLONaren 4 frogetan hartuko dute parte.

**4.1.2** Benjamin kategorian lau proba hauek daude Tetrathlonean: 60 m lauak, 1.000 m lauak, luzera-jauzia eta pisu-jaurtiketa (2 kg).

- 4.1.3** Alebin kategorian hauexek daude: 80 m lauak, 2.000 m lauak, luzera eta pisu-jaurtiketa (Mutil. - 3 kg / Nesk. - 2 kg).
- 4.1.4** Ihardunaldi atletikoa hasi baino ordu erdi lehenago partaide bakoitzaren "Pistarako Izen-emate Orria" aurkeztu beharko zaie antolatzaileei. Orri hau Eskola Kirolaren edozein bulegotan jaso daiteke.
- 4.1.5** Atletismo finalean parte hartzeko adinako marka lortzen badu atletaren batek, proba horretara joan ahal izango da **BALDIN ETA KIROL MODALITATE HORRETAN IZENA EMANDA BADAGO**.
- 4.1.6** Hemen aipatu ez ditugun arauak Atletismoko B. F.ren arauditik hartuko dira.

## 4.2 SASKIBALOIA

- 4.2.1** Taldeak 8 jokalariz izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalariek zati oso batez jolastu beharko dute.
- 4.2.2** Partiduak 10 minutuko 4 zati izango ditu erlojuz neurtuta. Bi zatiren artean 5 minutuko atsedena egongo da.
- 4.2.3** Berdinketaren aukera onargarria da, beraz ezingo da luzapenik jolastu.
- 4.2.4** Hemen aipatu ez ditugun arauak Saskibaloiko B. F.ren arauditik hartuko dira.

## 4.3 IGERIKETA

- 4.3.1** Talde bakoitzak 6 igerilari aurkeztuko ditu gutxienez ihardunaldi bakoitzean.
- 4.3.2 Benjamin** kategorian proba hauek egongo dira: 25 metro librez, 25 metro besoez, 3 x 25 metro librez, 3 x 25 metro besoez. Igerilari bakoitzak gehienez ere 2 proba indibidualetan eta erreleboko batetan hartu ahal izango du parte egunero.
- 4.3.3 Alebin** kategorian modalitate hauek egongo dira: 25 metro librez, 25 metro besoez, 25 metro bizkarrez, 3 x 25 metro librez, 3 x 25 metro besoez, 3 x 25 metro bizkarrez, 3 x 25 metro estiloz (Crol, Besoez eta Bizkarrez). Igerilari bakoitzak gehienez ere 3 proba indibidualetan eta 2 errelebotan hartu ahal izango du parte egunero.
- 4.3.5** Iharduna hasi aurretik antolatzaileei partaide bakoitzaren "Partaidetza Fitxa" eraman beharko zaie. Fitxak Eskola Kiroleko edozein bulegotan jaso ahal izango dira.
- 4.3.6** Hemen aipatu ez ditugun arauak Igeriketako B. F.ren arauditik hartuko dira.

## 4.4. FUTBOL 5

- 4.4.1** Talde bakoitzak gutxienez 8 jokalariz eta gehienez 15 izango ditu. Jokalariek zati oso batez gutxienez eta biz gehienez egon behar dute zelaian.
- 4.4.2** Porteruek zelaiko jokalariz gisa jokatu behar izango dute zatietariko baten; dena dela gerta daiteke hiru zatietan zehar jokatzea.
- 4.4.3** Partiduak 15 minutuko 3 zati izango ditu erlojuz neurtuta. Bi zatiren artean 5 minutuko atsedena egongo da.
- 4.4.4** Jokalariak aldatzeko modua egongo da beti ere aurreneko araua betetzen bada.
- 4.4.5** Hemen aipatu ez ditugun arauak Futboleko B. F.ren arauditik hartuko dira.

## 4.5 PILOTA

- 4.5.1** Eusko Pilotara jolasten hasteko jardunaldiak izango dira.
- 4.5.2** Partehartzaileek Eusko Pilotaren oinarrizko modalitateak, (Esku Pilota, Pala eta Zesta) ezagutuko dituzte Eusko Pilotaren B. F.ren zuzendaritza teknikoaren pean, euren adinerako bereziki egindako materiala izango dutelarik.

## 4.6 BEISBOLA

- 4.6.1.** Beisbolera jolasten hasteko jardunaldiak izango dira. Jardunaldi horiek Beisboleko B. F.ren zuzendaritza teknikoaren pean egingo dira.

**4.6.2** Jardueraren ezaugarriak Federazioko Arduradunak ezarriko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

## 4.7 MENDIA

**4.7.1.** Taldeak, Bizkaiko Mendiko Federakuntzak antolatzen dituen Mendiko irteeretara joan daien, egindako arautegi jarraituz.

### MULTIKIROLA 09 – 10

	UMETXO	UME
<b>TALDEKAKO KIROLAK</b>	FUTBOL 5 (8)	FUTBOL 5 / SASKIBALOA (10/12)
	SASKIBALOA (8)	
<b>BANAKAKO KIROLAK</b>	ATLETISMOA (2)	ATLETISMOA (2)
	IGERIKETA (2)	IGERIKETA (2)
<b>BERTAKO KIROLAK</b>	HERRI KIROLAK (1)	HERRI KIROLAK (1)
	EUSKO PILOTA (1)	EUSKO PILOTA (2)
	ARRAUNKETA (1)	ARRAUNKETA (1)
<b>BESTE KIROLAK</b>	CROSSA	CROSSA
	MENDIA	MENDIA

( ) Ihardunaldi Zkia.